



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko azaroaren 28a

141. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeliakoentzako produktuen inguruko neurriak susta ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartze aldera espetxeko osasun-laguntzaren arloko eskumenak. Osasun Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da adituen talde bat eratu dezan bat-bateko heriotza prebenitzeko plan bat prestatzeko. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri ezar ditzan atxilo daudenei laguntza medikoa emateko eta polizia-etxeetako zaintza-eremu guztietan bideo eta audio grabazioa ezartzeko. Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Francisco Javier Zahar Etxearen Mankomunitatean dauden Cabanillasko bizilagunei informa diezaien Cabanillasen berriz erroldatzeko aukera daukatela. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroan pertsona errefuxiatuak hartzeari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina (5. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeliakoen-tzako produktuen inguruko neurriak susta ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2016ko azaroaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeliakoen-tzako produktuen inguruko neurriak susta ditzan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Zeliakoentzako berariazko menuak gehitzea susta dezan jatetxeetan eta osasun- zein eskola-jantokietan.

2. Kontrol eta ikuskapen handiagoak susta ditzan, araudia betetzen dela bermatzeko.

3. Osasun-langileak gaixotasun zeliakoa diagnostikatzeko hezteia susta dezan.

4. Gaixotasun zeliakoaren mapa epidemiologikoa presta dezan.

5. Nafarroako Zeliakoen Elkarteak babestu dezan, gaixotasuna diagnostikatzeko laguntzeari eta gaixo horiek jaten ahal dituzten elikagaiak normalizatzeari lotutako ekintzak bultzatzeko.

6. Gaixo zeliakoentzako elikagai debekatuen eta onartuen zerrendak etengabe gaurkotzea eta horiek hedatzea susta dezan.

7. Gaixotasun horri buruzko berariazko informazio-kanpainak egin ditzan.”

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartze aldera espetxeko osasun-laguntzaren arloko eskumenak.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2016ko azaroaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartze aldera espetxeko osasun-laguntzaren arloko eskumenak.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala abian jar ditzan negoziazio egokiak Espainiako Gobernuarekin, Foru Komunitateak bere gain hartze aldera espetxeko osasun-laguntzaren arloko eskumenak, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen sei garren xedapen gehigarria aplikatuta.”

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da adituen talde bat eratu dezan bat-bateko heriotza prebenitzeko plan bat prestatzeko.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2016ko azaroaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da adituen talde bat eratu dezan bat-bateko heriotza prebenitzeko plan bat prestatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du adituen talde bat eratu dezan, bat-bateko heriotza prebenitzeko plan bat prestatzeko eginkizuna izanen duena”.

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri ezar ditzan atxilo daudenei laguntza medikoa emateko eta polizia-etxeetako zaintza-eremu guztietan bideo eta audio grabazioa ezartzeko.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak, 2016ko azaroaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri ezar ditzan atxilo daudenei laguntza medikoa emateko eta polizia-etxeetako zaintza-eremu guztietan bideo eta audio grabazioa ezartzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Gobernua premiatzen da:

1. Bideo eta audio grabazioa ezar dezan Foruzaingoaren polizia-etxeetako zaintza eremu guztietan eta atxilotutako pertsonak egon daitezkeen

toki guztietan, halako moduz non atxilotua grabatu eginen baita atxilotua dagoen epe guztian; ilungunerik ez egoteko modua eginen da, salbu eta hori bere intimitate-eskubidearen aurkakoa bada edo abokatuarekin edo sendagilearekin pribatuan egoteko eskubidearen aurkakoa. Grabazio horiek leku seguruan gorde eta zaindu behar dira arrazoizko epe batean, epaileek ikuskatzea eskatzen badute eskuragarri egon daitezen bermatzeko.

2. Protokolo bat ezar dezan, sei hilabeteko epean, atxilotuentzako laguntza medikoari buruz, zehazteko zer egin behar den atxilotu eta berehala, atxilotetak irauten duen bitartean eta, azkenik, atxiloteta amaitu aurretik”.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Francisco Javier Zahar Etxearen Mankomunitatean dauden Cabanillasko bizilagunei informa diezaien Cabanillasen berriz erroldatzeko aukera daukatela.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Javier García Jiménez jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Francisco Javier Zahar Etxearen Mankomunitatean dauden Cabanillasko bizilagunei informa diezaien Cabanillasen berriz erroldatzeko aukera daukatela.

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2016ko azaroaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko irailaren 8ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroan pertsona errefuxiatuak hartzeari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroan pertsona errefuxiatuak hartzeari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina, jasotzat ematea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroan pertsona errefuxiatuak hartzeari buruzko txosten berezia

- I. Legezko gaikuntza eta txostenaren justifikazioa (5. or.).
- II. Metodologia (7. or.).
 - A) Bilerak Gizarte Eskubideetako Departamentuarekin (7. or.).
 - B) Bilerak Nafarroako Gurutze Gorriaren egoitzan (8. or.).
 - C) Parte-Hartzea Madrilen, Espainiako Arartekoaren egoitzan, errefuxiatuei buruz egindako jardunaldi batean (8. or.).
 - D) Bisita errefuxiatuei Gurutze Gorriak kudeatutako Harrera Etxean (12. or.).
 - E) Lankidetzak hitzarmena Nafarroako Gobernuaren eta CEAREN (errefuxiatuen laguntzarako Espainiako Batzordearen) artean (13. or.).
 - F) Txosten bereziaren zirriborroa Gizarte Eskubideetako Departamentuari eta Nafarroako Gurutze Gorriari ematea (14. or.).
- III. Balioespena (14. or.).
- IV. Hobetzeko proposamenak (15. or.).

I. LEGEZKO GAIKUNTZA ETA TXOSTENAREN JUSTIFIKAZIOA.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 32.6 artikulua ezartzen du, egitateen larritasunak horretarako bide ematen duenean, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak txosten ezohiko edo monografiko bat, txosten berezia ere deitua, aurkeztu ahal izango diola Nafarroako Parlamentuari.

Bestalde, aipatu Foru Legearen 17. artikulua Foru Komunitateko Arartekoa gaitzen du, beste eginkizun batzuen artean, betiere organo eta zerbitzu eskudunekin elkarlanean, pertsonen bidezko interesen ahalik eta aldekoenak diren konponbideak lortzeko.

Lege-agindu horien eremuan, erakunde honek egokitzat jo du Nafarroan errefuxiatutako pertsonak hartzeari buruzko txosten berezi bat egitea.

2. 2016ko urtarrilaren 1etik, 150.000 errefuxiatu eta migratzaile iritsi dira Europara. 2015ean, Europar errefuxiatuen guztizkoa eta kontinente honetara etorritako migratzaileena milioi bat baino gehiago izatera pasa zen. Horietatik, 455.000 siriarrak naziotasunekoak ziren, 186.000 Afganistandik zetozen eta 63.000 Iraketik. Guztira, gerran edo argi eta garbi gatazkan diren Asiako herrialdeetatik zetozen 840.000 pertsona sartu ziren Europar iragan urtean.

Hamaika milioi siriarrak lekualdatu direla zenbaitesten da: hori horrela izanik, munduan errefuxiatutako edo behartuta lekualdatutako sei pertsonatik bat siriarra da, planeta osoak dituen 60 milioien artean. Kopuru horrekin zifrak hautsi dira Bigarren Mundu Gerratik. ACNURen arabera, gerra siriarrak eta eskualdeko gainerako gatazkek Ekialde Hurbila behartuta lekualdatzen den pertsona kopuru handienaren sortzaile eta hartzaile bilakatzen dute.

Europako Batasunak onetsitako birfinkatze- eta birkokatze-programak betez, orain arte, Italiatik datozen 368 desplazatu eta Greziatik datozen 569

inguru birkokatu dira gutxi gorabehera. Hau da, Europako Batasuneko Estatuak hartzera konprometitu ziren 160.000 pertsonetatik, guztira 937.

Nafarroan, 2015. urtean, Nafarroako Gobernuak errefuxiatuentzako harrera plan bat egin zuen.

Gizarte Eskubidetako Departamenduak emandako datuen arabera, 2016ko uztailan Nafarroak bazituen 60 plaza libre errefuxiatuentzat. Horietatik, 52 okupatuta zeuden (gainerako 8ak ministerioarentzat gordeta daude), eta horietatik 23 siriarrak ziren.

2016ko azaroan, Nafarroako Gobernuak argitaratu emandako datuen arabera, Nafarroan baziren 73 errefuxiatu, horietatik 61 harrera-fasean zeuden eta 12 gizarteratze-fasean. Jatorrizko herrialdea kontuan hartuta, kopururik handiena (% 31,5) Siriatik zetorren, eta kopuru horren atzetik ziren Ukrainatik (% 1) eta Venezuelatik (% 14) etorritakoak. Kopuru txikiagoan, Nafarroan hartuta zeuden, halaber, Jordaniako, Sri Lankako, Hondurasako, Irakeko, Armeniako, Palestinako eta beste herrialde batzuetako pertsonak. Datu horien beraien arabera, 2015eko urritik Nafarroako Foru Komunitateak 83 errefuxiatu hartu zituen eta horietatik 47 gizonak ziren, 36 emakumeak eta 30 adingabeak. Pertsona guztien artetik, 20 Grezia eta Turkiako kanpamenduetako birkokatzeetatik zetozen.

3. Estatu espainiarrak errefuxiatutako edo hartutako pertsonak urriaren 30eko 12/2009 Legeak, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen duenak, ezarritakoak eraentzen ditu. Lege horren arabera, Batasunekoak ez diren pertsona nazionalak eta Espainiako lurraldean dauden aberrigabeek badute Espainian nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea (16.1 artikulua). Eskabidearen aurkezpenak honako gizarte eskubide hauek, beste eskubide batzuen artean, ematen dizkio asilo-eskatzailari: osasun-arretarako eta berariazko prestazio sozialak eskuratzeko eskubidea lege horrek jasotzen dituen baldintzetan (18.1 artikulua).

Botere publikoei dagokie beharrezkoak diren gizarte- eta harrera-zerbitzuak ematea nazioarteko babesa eskatzen dutenei, betiere baliabide ekonomikorik ez badute, eskatzaileen oinarritzko beharrik duintasunez asebetetzen direla bermatzeko, kalterik egin gabe, atzerritarren diren aldetik Atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan eta bere garapen arautegian (30.1 artikulua) xedatutakoari.

Asilorako eskubidea edo babes subsidiarioa emateak Errefuxiatuen Estatuari buruzko Geneva-ko Konbentzioan ezarritako eskubideen onarpena dakar, atzerritarren eta immigrazio arloan indarrean dagoen araudian, baita Europar Batasuneko araudian ere, eta, edonola ere, gizarte-eskubideei dagokienez, espainiarren baldintza berdinetan, honakoak eskuratzeko aitortzen zaie (36.1 artikulua):

- a) enplegu-zerbitzu publikoak;
- b) hezkuntza;
- c) osasun laguntza;
- d) etxebizitza;
- e) gizarte-arreta eta gizarte-zerbitzuak;
- f) genero-indarkeriaren biktimei ezar dazkieken legeriak aitortutako eskubideak;
- g) gizarte segurantza, hala badagokio;
- h) ezarriko diren izaera orokor edo zehatzeko gizarteratze-programak;
- i) etengabeko edo lanerako trebakuntza eta praktika-lana;
- j) diploma eta ziurtagiri akademiko eta profesionalak eta atzerrian emandako beste kalifikazio-proba ofizialak onartzeko prozedurak.
- k) bizikidetzaren unitatea mantentzen laguntzeko ezarriko diren programak.

Botere publikoek nazioarteko babes-estatutua duten pertsona horiek gizarteratzen laguntzeko beharrezkoak diren programak ezartzeko betebeharrak dute, zerbitzu orokorrak eskuratzeko orduan aukera berdintasuna eta diskriminaziorik ez egotea bilatuz. (36.2 artikulua). Kasu zehatzetan, zailtasun sozial edo ekonomikoak direla eta, herri administrazioek lan, etxebizitza eta hezkuntza zerbitzu orokorrak eskuratzeko sistema publikoetarako zerbitzu osagarriak jarriko dituzte abian, bai eta dokumentuak interpretatu eta itzultzeko zerbitzu espezializatuak, adinduendako eta ezgaitasuna dutenendako laguntza iraunkorrak eta larrialdietarako diru-laguntzak ere (36.4).

Gainera, asiloa eskatzen duten adingabeek, edozein bortxa, axolagabekeria, ustiapen, tortura edo tratu anker, gizagabe edo umiliagarri motaren biktime izan badira, edo gatazka armatuen biktime izan badira, behar duten osasun arreta eta arreta psikologiko egokia eta arreta kualifikatua jasoko dute.

4. Nafarroako Foru Komunitatearen eskumena da, osasun, hezkuntza eta gizarte arloan dagozkion eskumenen arabera, asilo-eskatzailentzat

berariaz bideratutako zerbitzuak eta programak kudeatzea, Estatuko Administrazio Orokorrarekin koordinatuz eta lankidetzan (laugarren xedapen gehigarria). Era berean, Foru Komunitateak kolektibo horri eskuragarri dituen gizarte baliabide zehatzei buruzko informazioa, bai eta asilo-eskatzailleentzako arreta espezializatuko erakundeei buruzkoa (idem) ere, eman behar dio.

II. METODOLOGIA

Nafarroako Arartekoaren erakundeak jarduketa hauek egin ditu:

A) Bilera Gizarte Eskubideetako Departamenduarekin

Ekainaren 28an, 12:00etan, Nafarroako Arartekoren bi aholkularik, Pilar García García andreak eta Inés Monreal Azkarate andreak, Gizarte Eskubideetako Departamenduaren bulegoak bisitatu zituzten eta Nafarroan errefuxiatuak hartzeari buruzko elkarrizketa bat eduki zuten Gizarteratze Zerbitzuaren zuzendari Josune Legal Errorekin eta Gizarteratze eta Gutxiengoen Arretarako Departamenduko buru Agustín Otazu Elkanorekin.

Bilera horretan emandako informazioaren arabera, errefuxiatuen programa kudeatzen duen Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak egiaztatutako erakundea Gurutze Gorria da. Ez da berariazko programa bat sortu siriari errefuxiatuen kariatara, baizik eta errefuxiatu horientzako programa orokorra normalizatu eta egokitu da, berariazko ad hoc baliabideak sortu gabe.

Programa honek hiru fase biltzen ditu eta horien iraupena 18 eta 24 hilabete artekoa da.

2015eko irailean, Nafarroako Gobernuak harreman plan bat egin zuen. Nafarroak 200-300 pertsona hartu ahalko zituela aurreikusitako plan horrek.

Gizarteari eta erakundeei dei egin zitzaion eta, 012 telefonoaren bidez, plan horretarako etxebizitzak eskainiz erantzun zuten.

Lehendabiziko errefuxiatuak 2015eko azaroan eta abenduan iritsi ziren Nafarroara. Kolonbia eta Hondurastik zetozen, eta bi familia siriari Ceuta eta Melillatik etorri ziren, baina bakarrik hiru egun eman zituzten Nafarroan.

2016ko maiatzaren 26an, Errefuxiatuari Laguntzeko Espainiako Batzordeak (CEAR) Bilbon duen ordezkartzaren bitartez, sei pertsona iritsi ziren, horien artean bi adingabe.

2016ko ekainaren 1ean, 14 pertsona iritsi ziren, horien artean bost siriari eta bost irakiar, horietatik

sei adingabeak. Lau familia-unitate ziren (guztira sei adingaberekin) eta, gainera, lau heldu.

2016ko ekainaren 23an, Turkiatik 6 siriari iritsi ziren (bi familia-unitate eta adingabe bat).

Badira okupatzeko plaza gehiago prest (60 plaza), baina zenbat pertsona eta zer mementotan etorriko diren ez jakiteak Nafarroako Gobernuaren kudeaketa oztopatzen du.

Hasieran, eta duela gutxira arte, ministerioak bakarrik Gurutze Gorriari ematen zion errefuxiatuen etorreraren berri. Gizarte Eskubideetako Departamenduak jakinarazitakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak behin eta berriz erakutsi duenez errefuxiatuen etorreraz jakinaraz diezaiten duen beharra, ministerio eskudunak etorrera horren berri eman dio aipatu departamenduari, behin baino ez, eta beste batzuetan ez dio jakinarazi.

Gizarte Eskubideetako Departamenduaren arabera, hasiera-hasieratik, Nafarroako Gobernuak behin eta berriz eskatu dio Estatuko Administrazioari asiloa eta aterpea eskatu duten pertsonak lehenbailehen lekuz aldatzeko, eta Nafarroako Gobernuaren ustez, erantzuna ez da egon egoeraren larritasunak eskatzen duen mailan.

Era berean, Gizarte Eskubideetako Departamenduak jakinarazi du Nafarroako Gobernuak Estatuko Administrazioa premiatu duela autonomia erkidegoek pertsona horiei arreta ematera bideratutako Europar Batasuneko eta Estatuko baliabide ekonomikoen banaketan parte-har dezaten ahalbidetzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta administrazioaren aldetiko prozedura egokiak abian jartzera, egoera honi osotasunean aurre egiteko neurri egokiak elkarrekin hartze aldera.

Beste alde batetik, aipatu departamenduaren arabera, Nafarroako Gobernuak behin eta berriz eskatu du, presazko izaeraz, Immigrazioari buruzko Konferentzia Soziala deitzea gai horri elkarrekin heltzeko.

B) Bilera Gurutze Gorriaren egoitzan.

Uztailaren 29an, 10.00etan, Nafarroako Arartekoaren aholkulariek, Inés Monreal Azkarate andreak eta Pilar García García andreak, bilera bat eduki zuten Gurutze Gorriko gizarte langilea eta Asilo-eskatzailleentzako eta Nazioarteko Babesaren Onuradunentzako Harrera eta Gizarteratze Programa Integralaren erreferente den Josune Anozibarrekin eta Gizarteratze Departamenduko buru den Agustín Otazu Elkano jaunarekin.

Nafarroan errefuxiatuak hartzeari buruz ekainaren 28an Gizarte Eskubideetako Departamenduak emandako informazioa zabaltzea izan zuen helburu bilera horrek.

Informazio horren arabera, Gurutzek Gorriaren "Asilo-eskatzaileentzako eta Nazioarteko Babesaren Onuradunentzako Harrera eta Gizarteratze Programa Integralak" barne hartzen ditu errefuxiatuak edo aberrigabeak izateagatik asiloa eskatzen duten pertsonak eta, programa honen baitan, eskatzaileek aipatu programak eskura jartzen dituen zerbitzu guztiak erabiltzen dituzte.

Errefuxiatuen gizarteratze-prozesuak mailaz mailako fase ezberdinak dituela azaldu zitzaion erakundeari:

1. Harrera-fasea: sei eta bederatzi hilabete arteko iraupena.

a. Lehen harrerako zerbitzua.

Pertsonak naturaltasunez jotzen dute, beraien kabuz, jaso behar dituzten lehen arretei buruzko informazioa eskatzera. Behin asilo-eskaera egiteko zita edukita, eta pertsonak bizitzeko baliabiderik ez badu, harrera-zentro batera bideratzen da.

b. Aldi baterako harrera-zerbitzua.

Fase horretarako, Gurutze Gorriak baditu 60 toki, horietako 20 Iruñerrian dagoen komunitate-egoitza batean eta 40 toki Iruñerri osoko eta Iruñera sartzeko erraztasunak dituzten hainbat herritako pisuetan banatuta. Etxebizitza-baliabide horiek guztiak Gurutze Gorriak babesten ditu eta bertara hezitzaile bat joaten da sortzen diren eguneroko beharretan laguntzeko.

Fase honetan, prestakuntza eta oinarrizko ikastaroak eskaintzen zaizkie eta atotsitako pertsonak dauden tokia testuinguruan kokatzea da funtsezko helburua.

2. Gizarteratze-fasea: gutxi gorabehera, sei hilabeteko iraupena.

Fase honetan, atotsitako pertsonak etxebizitza libre bat eskuratzen dute. Fase honetan, dirulaguntzen zerbitzuak dauzkate. Prestazio katalogo bat dira eta prestazio horiek beren beharren arabera (alokairurako, hezkuntza beharrak, garraio beharrak, etab.) eskura ditzakete. Gainera, egiaztatutako erakundeak, kasu honetan Gurutze Gorriak, ematen jarraitzen duen intentsitate txikiagoko tutelajea ere badute.

3. Burujabetza fasea: gutxi gorabehera, sei hilabeteko iraupena.

Proposatzen den esku-hartzea puntualagoa da, atotsitako pertsonak beren gizarteratze prozesuan aurrera egin dutela jotzen baita.

Azaldutako hiru fase hauek errefuxiatuentzako boluntariora zerbitzu batek sostengatzen ditu gainera. Amek (bereziki amabakarrek) badute eskuragarri kontziliatuzko zerbitzu bat ikastaroetara joan daitezen edo lana bila dezaten.

C) Parte-hartzea Madrilen, Espainiako Arartekoaren egoitzan, errefuxiatuei buruz egindako jardunaldi batean.

2016o urriaren 5ean Nafarroako Arartekoaren aholkulari Iñaki Chourraut Agirre jauna NBEren Errefuxiatuentzako Agentziak (ACNUR) eta Herriaren Babesleak Madrilen antolatutako jardunaldi batean izan zen. Jardunaldiak bi zati izan zituen:

Lehendabiziko zatia irekia izan zen eta Administrazioek eta GKEek parte-hartu zuten.

Bigarren zatia itxiagoa izan zen, estatuko, erki-degoetako eta tokiko administrazioek parte-hartu zuten, horien arteko koordinazioari buruz eztabaidatzeko asmoz.

Lehenengo fasean mahai-inguru bat egin zen eta, bertan, behartutako lekualdatzeek eta migrazio mugimendu mistoek testuinguru global batean sortzen dituzten eraginari eta aukerei buruz eztabaidatu zen. Jarraian, eta Espainiaren testuinguruan, administrazio ezberdinetako ordezkariak birkokatze- eta finkatze-konpromisoen eremuko harrera eta gizarteratzeari buruz aritu ziren, bai eta koordinazio eredu antolatze erari buruz ere.

Bigarren zatian, etxebizitzari, enpleguari eta hezkuntzari buruzko hiru lantalde antolatu ziren. Jardunaldira joan zen erakundearen aholkulariek etxebizitzari buruzko lantaldean parte-hartu zuen. Talde horretan, agerian geratu zen badela koordinazio arazoren bat tokiko erakundeen, autonomia erkidegoen eta Espainiako Gobernuaren ministerio eskudunaren artean. Ildo horretatik, jardunaldian izan ziren tokiko administrazioak eta administrazio autonomikoak bat etorri ziren honako hauek adieraztean: errefuxiatu gutxi jasotzen ari dira jada prest duten harrera-ahalmenarekin alderatuta, eta autonomia-erkidegoek eta toki erakundeek errefuxiatu gehiagoren harrera bere gain hartzen dutenean, ministerioak oso denbora gutxi lehenago jakinarazten die hartu behar duten pertsonen kopurua, eta horrek plangintza egitea zailtzen du.

Bigarren fase horretan, argi geratu zen tokiko eta erkidegoetako administrazioek errefuxiatuei harrera-aldian (18-24 hilabete artean irauten du)

arreta emateko baliabide nahikoa dituzten arren, arazoa aldi hori bukatzen denean sortzen dela, errefuxiatuek ez baitute berriazko baliabiderik eta beste herritar batek bezala eskuratu behar dute etxebizitza. Inguruabar horrek gizarte-bazterketa egoeran jartzen ditu errefuxiatuak, izan ere, etxebizitza bat eskuratzeari lotutako arazoei lana lortzarekin lotutakoak gehitzen zaizkiolako, errefuxiatu gehienek enplegarritasun eskaseko profila dutela ikusita (40 urtetiko gorako adina, hizkuntzaren ezagutza mugatua, bertako ohituretatik ezberdinak diren ohiturak...).

* Jardunaldian **ondorio orokor** hauek atera ziren:

a) Gaur egun historian inoiz baino behartutako lekualdatze gehiago dauzkagu: 65 milioi baino gehiago. 10 errefuxiatutik 9 gainezka dauden gatazka-eskualdeetatik hurbileko herrialdeetan atotsi dituzte.

b) Errefuxiatuen egoerari konponbideak bilatzeko eta errefuxiatuak babesteko erantzukizuna denona dela onartzeko beharra egiaztatu da, 193 herrialdek sinatutako New Yorkeko Adierazpenean eta 2016ko irailaren 19 eta 20ko errefuxiatuei buruzko gailurrean islatu zen moduan.

c) Arduren banaketa errefuxiatuei buruzko gaietan Europako eremuari dagokion afera da. Europaren birkokatze- eta birfinkatze- konpromisoak babestu eta indarrean jarri, Europako Batzordeak (EB) eskatu bezala.

d) Erronka globala eta eskualdekakoa da, eta Espainiak ezin du erronka horretatik aldendu. Gau arte, Espainiak, gutxi gorabehera, EBeko asilo-eskatzailen % 1 hartu du.

e) Espainiako gizarteak mezu argia bidali du konponbideen eta elkartasunezko harreraren lehen ilaran egon nahi duela esanez.

f) Europako Batzordeak, Italiak eta Greziak Europar Batasuneko kide diren herrialdeek errefuxiatuak birkokatze mekanismoei dagokienez arinago erantzuteko eskatzen dute.

g) Espainiak konpromiso lotesleak onartu ditu asilo-eskatzailen eta errefuxiatuen harrera eta gizarteratzeari buruzko gaietan (1951ko Hitzarmena, asilo eta babes subsidiarioa arautzen dituen legea, Europako zuzendaritzak, EBeko Migrazioen Egutegia) eta, azkenik, 2016ko irailaren 19an onetsitako New Yorkeko Adierazpenak errefuxiatuak babesteko erantzukizunak denona izan behar duela egiaztatzen du.

H) Iristen ari den asilo-eskatzaille eta errefuxiatuen kopurua, bai bat-batean iristen direnena bai

eta birkokatze edo birfinkatze kuoten edo beste kuota batzuen pean iristen direnena ere, gora egiten ari da, eta horiek behar bezala atostea eta gizarteratzea Espainiako asilo-sistemarentzat, pentsatuta dagoen bezala, gero eta erronka handiagoa dela egiaztatu da.

i) Nazioarteko babesari, errefuxiatuaren estatua zehazteari eta atzerritarren onartzeko politikei buruzko gaietan Estatuko Administrazioaren esku-mena eztabaidaezina da, baina egia da ere erkidegoetako eta udaletako administrazioek badituztela eskumenak beren hirietan bizi behar duten errefuxiatuak gizarteratzeari dagozkion alderdi askotan (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, lana).

j) Erkidegoetako eta udaletako administrazio askok eskaintza oso zehatzak eta eskuzabalak egin dituzte harrera eta gizarteratzen gaietan. Errefuxiatuen beharrei erantzuteko moduak bilatzea funtsezkoa da Espainiak hartutako konpromisoak eta administrazio guztien eskaintzak eta eskumenak batuz.

k) Jardunaldian gako-hitz hauek izan ziren gehien: komunikazioa, koordinazioa, gardentasuna, erantzukidetasuna eta planifikazioa. Haatik, informazioak jariorik ez duela edo jario zatikatua duela, informazioaren jarioa berandu gertatzen dela eta parte-hartu beharko zuten eragile guztiei iristen ez zaiela hauteman zen jardunaldiaren eztabaida guztietan. Koordinazio eredu dinamikoa goa eta parte-hartzaileagoa eskatzen da, egitura-tua eta aurreikusgarria, eta ahaleginak eta baliabideak batzen dituen.

l) Bada kontzientzia handia honako honen inguruan: gizarteak ezin du onartu errefuxiatuen krisiak Mediterraneoan eragin duen elkartasun emari osoa galtzea, eta ezin da horretan frustraziorik eragin arrazoizko denboran erantzun bat emateko gai ez izateagatik.

m) Birkokatze- eta birfinkatze-programen baitako harrerari dagokionez, 2015ean EBko Migrazioen Egutegiaren barnean Estatua hartzera konprometitu zen pertsonen (17.500 inguru) % 96, gutxi gorabehera, falta dira Espainiara etortzeko eta konpromisoa 2017 amaitu baino lehen gauzatu beharko litzateke.

n) Eremu publiko eta pribatu ezberdinetatik etorri diren eragile berriak parte harraraztearen beharra egiaztatu zen. Horien eta administrazioen eta Espainian errefuxiatuak atosten eta gizarteratzen eskarmentudunenak diren erakundeen arteko elkarlana funtsezkoa da sistemaren egungo erronkei heltzeko. Erronkak gizarte osoari eragiten dio.

ñ) Erkidegoetako eta tokiko administrazioek errefuxiatuen planifikazio, harrera eta gizarteratze prozesuan modu aktiboagoan parte-hartzeko gogoia argi eta garbi azaldu zen, Estatuko Administrazioaren koordinazioaren pean eta erakunde adituaren parte-hartzearekin.

* Jardunaldian sortu ziren **proposamenei** dagokienez, hauek azpimarratu behar dira izaera **orokorrez**:

a) Estatuko Administrazioaren, autonomia erkidegoen eta udalen artean errefuxiatuak atosteko eta gizarteratzeko programei eta planei buruzko komunikazio jariora eta zuzena garatzea. Programak nork planifikatzen, ebaluatzen eta egikaritzen dituen argi uzteko eskatu zen. Autonomia erkidegoek eta udalerriek beren eskumen propioak dituzte gizarteratze gaian. Eskumen horiek ez dituzte bete behar eragile subsidiario gisa, baizik eta errefuxiatuen harrera- eta gizarteratze-plan estrategiko baten parte aktibo bezala.

b) Erkidegoetako eta tokiko administrazioak parte-hartzaile izango dituen errefuxiatuak atotsi eta gizarteratzeko koordinazio tresna arin bat eskatu, horri esker aurreikusgarritasun handiagoa eta baliabideetan eta arreta planen prestakuntzan, epe labur, ertain zein luzera begira, eraginkortasuna lortuko lirake eta. Ekintza plan baten bidez gauza liteke Espainian, Estatuko Administrazioaren koordinazioaren pean. Plan horrek asilo gaian adituak diren administrazio eta erakunde guztien laguntza edukiko luke.

c) Eredua berriz definitu. Eredu zentralizatu batetik harrera- eta gizarteratze-programak kudatzeko autonomia erkidegoen eta udaletxeen eskumenetan sostengatutako eredu autonomoago batera igaro, Estatuak finantzatua. Estatuko Administrazioek sistemaren ildo gidariak eta kontuen kontrol eta kontu-arrazoiak emateko mekanismoak ezarriko lituzke. Espainian asilo-eskatzailen eta errefuxiatuen gaur egungo bolumenak -eta irits daitezkeenarenak- sistema babesten duten eragile askoren arteko elkarrekintza eskatzen du.

d) Tokiko administrazioek eta administrazio autonomikoek beren autonomia erkidegoetan eta hiriburuetan, hurrenez hurren, lanean ari diren Estatuko Administrazioaren eta asilo gaian adituak diren erakundeen arteko hitzarmen eta akordioen berri izatea beharrezkoa da, izan ere, azken batean errefuxiatuak toki horietan gizarteratu behar direlako eta toki horietako gizarte zerbitzuak eskatuko dituztelako.

e) Gizarteratze prozesuan asilo-eskatzailen eta errefuxiatuek kontaktatzen dituzten informazio zentroak eta erakundeak (INEM, Gizarte Seguran-

tza, hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak) finkatu. Zentro horietako pertsonen nazioarteko babesari buruzko informazioa jaso ahal izango zuten eta instituzioen, asilo gaian adituak diren erakundeen eta erabiltzaileen arteko lotura-lana egin ahal izango zuten.

f) Udaletatik eta GKEetatik hurbiltasuneko lana sendotu. Gizarte sarea sendotu; harrera-gizarte eta errefuxiatuen harrera eta gizarteratzean modu batera edo bestera esku-hartu behar duten eragileak (enpresak, sindikatuak, hezkuntza zentroak, eta abar.) errefuxiatuen egoeraren inguruan sentsibilizatu.

g) Gizarteratze adierazleen sistema bat ezarri. Espainian errefuxiatutako biztanleriaren datuak eskuragarri eduki gizarteratzeari buruzko gutxieneko estandarrekin: hizkuntza maila, zenbat atera diren zentroetatik eta zenbatek dute lana, zein sektoretan. Arrakastara eraman duten gakoak zeintzuk izan diren eta kolektibo horrekin planifikazio eta lan estrategiak hobetu ahal izateko zer faltatu zaien jakin nahi da.

h) Errefuxiatutako gizon eta emakumeek dagozkien gaien inguruko iritzia eta proposamenak adierazi ahal izateko komunikazio eta ebaluazio bideak ezarri. Programen hartzaileei entzutea sistema planifikatzeko eta hobetzeko gakoak da, sinesgarritasuna ematen du eta politikak kalitate handiagoz hornitzen ditu.

i) Gizarte zibilaren elkartasuna ahalbidetzeko ereduak eta formulak gehitu. Estatu, autonomia eta toki mailan eskuragarri dauden baliabide guztiak, hautatuak eta balioetsiak, biltzen dituzten eta estatu mailan eratu diren datu-baseak indartu eta gorde. Base horiek tresna baliagarria eta eraginkorra izan daitezke asilo-eskatzailen eta errefuxiatuen harrera- eta gizarteratze-programen koordinazioan. Horri esker, gizarte zibila parte-hartzaile izango litzateke eta sentsibilizatzen eta lagundu nahi dutenen nahi eta atsekabeen kudeatzen lagunduko luke. Horri esker ere, bide emango zitzaien laguntza-sareen eta "mentorizazio" programen sorrerari.

j) Gizarte zibilarekin informazio eta komunikazio sistemak kolektibo honen aldeko programa eta jardueren inguruan, sentsibilizatzeko eta elkar ezagutza sendotzeko ere balioko dutenak.

k) Politika publiko aktibo eta estrategiko bat diseinatu honako hauek garatzea xede: kolektibo honi buruzko komunikazioa eta informazioa, zurrumurruak zabal eta areago ez daitezen (arrazakeria/xenofobia eragotzi), eta sentsibilizazioa, prozesuan eragile publiko eta pribatu ezberdinak sar daitezen.

* **Etxebizitza eskuratzeko eskubideari** dagokionez, proposamen hauek egin ziren:

a) Eskuragarri dauden baliabideei eta programei buruzko informazioa alde guztietara (Estatuko Administrazioa, erkidegoetakoa eta tokikoa) jaria-zea beharrezkotzat jotzen da.

Toki eta erkidego mailan eskuragarri dauden etxebizitzaren erabilera baliabideak hobetzeko, autonomia erkidego edo udal bakoitzak dauzkan baliabideak jakinarazi behar dira eta informazio hori bildu eta datu-base baten bidez sistematizatu behar da. Baliabide horiek behar bezala planifikatu eta erabiltzeko balio beharko luke tresna horrek, administrazio guztien parte-hartzearekin.

c) Etxebizitza baliabideei laguntzeko jarraitutasun plan osagarriak ezartzea beharrezkoa da etxebizitza jasagarria izan dadin epe ertainera eta luzera. Ildo horretatik, beharrezkoa da pertsonen lan duin bat eskura dezaten arduratzea eta gero beraiek etxebizitza bat ordaintzeko aukera edukitzea, generoari buruzko gogoetak eta gerta daitezkeen kalteberatasunak begien bistatik galdu gabe.

d) Harrera-programetako denboren eta ebazpena egiteko behar diren denboren arteko koordinazioa.

e) Agintari zentralak tokiko eta autonomietako erakundeei informazio gehiago eta hobea eman harrera- eta gizarteratze-programaren, dituen baliabideen eta programaren kudeaketaren gainean. Horri esker, errefuxiatuei laguntzeko administrazio bakoitzak berezko dituen eskumenen erabileran maila bakoitzeko jarduerak koordinatzeko eta sinergiak hautemateko aukera egongo litzateke, eta horrela, baliabideen koordinazioari eta hobekuntzari lagunduko litzaieke.

f) Etxebizitza eskuratzeari dagokionez errefuxiatuen kolektiboari diskriminazio positiboko politikak ezartzeko aukera. Ekimen mota hauek behar bezala definituta eta kudeatuta egon behar dute behar bereziak dituzten beste kolektibo batzuekin desberdintasunak sor daitezela galarazte aldera, kontuan hartu behar baita askotan baliabide gutxirekin egiten dela lan.

g) Beharrezkoa da lankidetzaren handia jarrera xenofoboak eta getoak sor daitezela saihesteko.

h) Administrazioen arteko koordinazio protokoloak ezarri eta partilularren harrera-ekimenak bideratu. Estatuak lehendabiziko asilo-herrialdeetan identifikatutako errefuxiatuak atosten dituzten laguntza pribatuko programak, eta harrera eta gizarteratzeko laguntza, behin helmuga-herrialdean eta partikularrek bideratua, aztertu beharreko aukera da.

l) Hausnarketarako bideak ezarri errefuxiatuek etxebizitza eskuratzeari buruzko gaian administrazio guztiek komunean dituzten erronkei aurre egiteko. Horretarako, jada badauden koordinazio-egiturak baliatzen ahal dituzte, besteak beste, Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa (FEMP), edo beste batzuk sortzen ahal dituzte. Errefuxiatuen parte-hartzea edukitzea komenigarria litzateke.

* **Lana eskuratzeko eskubideari** dagokionez, proposamen hauek egin ziren:

a) Gehien eskatzen diren lan-profilei eta lanerako etorkizun handiena duten enpresa-jardueretako sektoreei buruzko informazioa eduki. Langile trebatuak aurkitzeko zailtasun handienak dituzten sektoreak ezagutu, errefuxiatuentzako lanerazte-ibilbideak gabezia horiei erantzutera bidera daitezkeen prestakuntza ekintza zehatzak garatuz.

b) Lehenbailehen errefuxiatuen hezkuntza eta lan profilen informazio zehatza eduki norbanako lan-ibilbide bat planifikatzeko.

c) Hizkuntza-eskolak hasieratik sendotu errefuxiatuak harrera-dispositibo espezializatuetatik prestatuago atera daitezela eta gizarteratze erronkei hobe aurre egin diezaieten. Hizkuntzarekiko lehen harreman hau harrera-herrialdeetatik (Grezia, Italia edo birfinkatze herrialdeak) egiteko eta autonomia-erkidegoak eta tokiko administrazioak inplikatzeko aukera proposatu da.

d) Titulazio akademikoak baliozkotzeko eta aurretiko lan esperientzia aitortzeko bideak arindu eta sendotu. Autonomia-erkidegoetan eta unibertsitateetan laguntza-zerbitzuak edukitzea jardute egokia litzateke dokumentazioaren txostena prestatzeko.

e) Gaur egungo hezkuntza-ordenamendua autonomia-erkidego ezberdinetan bateratu, karerra jakin batzuetan ikasketak gauzatzeko edota amaitzeko baliozkotze-baremoak aldatu egiten baitira unibertsitate batetik bestera.

f) Errefuxiatuak eta asilo-eskatzailak autonomia-erkidego batetik bestera aldi baterako izaeraz lekualdatzeko arreta-programak malgutu lana bila dezaten.

g) Errefuxiatuen hizkuntza-gaitasunak aitortu (ama-hizkuntza eta beste batzuk) egiaztapen-mekanismo bat eratuz.

h) Asilo-eskaerak legeak aurreikusitako epeetan (sei hilabete) ebazteak beren etorkizunaren inguruan duten kezka gutxituko luke eta nazioarteko babesa jasoko dutenen ibilbideetan ahaleginak

eta baliabideak antolatzen lagunduko lieke teknikariei.

l) Giltzarri diren erakundeetan (INEM, Gizarte Segurantza, Gizarte Zerbitzuak) asilo gaien formakuntza duten pertsonak izendatu gizarteratze-prozesuan kolektibo hau horiekin harremanetan jarri ahal izateko. Pertsona horiek nazioarteko babesari buruzko informazioa jaso ahal izango zuten eta erakundeen, asilo gaien adituak diren erakundeen eta erabiltzaileen arteko lotura izaten ahal ziren.

j) Udaletatik eta GKEetatik hurbiltasuneko lana sendotu. Gizarte sarea sendotu; harrera-gizartea eta errefuxiatuen harreran eta gizarteratzean modu batera edo bestera esku-hartu behar duten eragileak (enpresak, sindikatuak, elkarteak, hezkuntza-zentroak, eta abar.) errefuxiatuen egoeraren inguruan sentsibilizatu.

k) Kolektibo horrekin egiten den lanean gizarteraren elkarriketa eta erakundeen, besteak beste OITren, enpresa-sektorearen eta sindikatuen parte-hartzea sendotu gizartera daitezen eta lana eskura dezaten sustatzeko. Errefuxiatuen eta asilo-eskatzailen aldeko enpresen eta fundazioen gizarte erantzukizun korporatiboko ekintzak sustatu.

l) Errefuxiatuen kolektiboa (asilo-eskatzailak barne) behar bereziak dituen eta baztertuak izateko arriskua duen kolektibotzat jo eta, aldi berean, lana eskura dezaten neurrietan oreka bilatu egoera ahulean dauden beste kolektiboei kalterik ez egiteko. Lana eskuratzeari dagokionez, kontuan hartu alderdi hauek: generoa eta adina (emakume errefuxiatuak) eta behar bereziak dituzten pertsonak (bakarrik dauden eta haien ardurapean adingabeak dituzten pertsonak, adinez zaharragoak diren pertsonak, pertsona traumatizatuak edo kalteberak, ezberdintasun funtzionalak dituztenak, eta abar.)

m) Lan-politika publikoak: autonomia-erkidego batzuek badute kontratazio publikorako eredu bat, kolektibo kalteberen (ezgaitasuna, indarkeriaren biktima diren emakumeak...) kontratazioa sustatzeko kontratuen gordekin batekin. Errefuxiatuak datorren urtean kategoria berezi bat bezala hartuak izateko lan egiten ari da (Gaztela eta Leon).

* Azkenik, **hezkuntza eskuratzeko eskubideari** dagokionez, proposamen hauek egin ziren:

a) Gobernuko Lehendakariordetzak koordinazio mahaia berriz aktibatu edo beste eredu bat ezarri Estatuko Administrazioaren, autonomia-erkidegoen eta udalen artean koordinazio eta planifi-

kazio eraginkorrak izateko eta behar bezalako informazio-jarioa egoteko.

b) Gaur egun, autonomia-erkidegoek eta probintziek GKEen bidez jasotzen dute asilo-eskatzailen profilen eta beharren informazioa.

c) Estatuko Administrazioaren eskutik lehenbait lehen jaso etorrera-aurreikuspenak eta errefuxiatuen hezkuntza-profilen informazio zehatza, beharrrak aurreikusteko eta norbanako ibilbide bat prestatzeko.

D) Harrera- eta gizarteratze-prozeduraren protokolizazioa administrazio bakoitzean, eremu bakoitzerako arduradunak edo focal points izenekoak ezarriz.

e) Adierazle-sistema bat ezarri hezkuntza-programen gizarteratze eta eraginkortasun maila neurtzeko. Arrakastara eramanez gakoak zeintzuk izan diren eta kolektibo horrekin planifikazio eta lan estrategiak hobetu ahal izateko zer faltatu zaien jakin nahi da. Gaur egun, gizarteratze mailari buruzko informazioa GKEetatik dator eta emandako informazioa ez dago estandarizatuta.

f) Espainiako Gobernuak autonomia-erkidegoak baliabide gehiagoz hornitu unibertsitatean eta gainerako hezkuntza-mailetan sartu ahal izateko.

g) Eskola-laguntza: gaur egun, bolondresen baitan dago neurri handi batean, eta askotan bolondresak ez daude behar bezala gaituta gizarte bitartekariaren eginkizuna betetzeko. Autonomia-erkidegoei fondo gehiago emateaz gainera, bolondres horiek trebatzeko programak ezartzea gomendatzen da.

h) Errefuxiatuen kolektiboa (asilo-eskatzailak barne hartuta) baztertua izateko arriskua duen kolektibotzat jo eta, aldi berean, oreka bilatu errefuxiatuak derrigorrezkoak ez diren hezkuntza mailalara sartzen laguntzeko neurriek beste babesgabe batzuei kalterik egin ez diezaieten ("nasionalekiko lehia").

D) Bisita errefuxiatuei Gurutze Gorriak kudeatutako Harrera Etxean.

2016ko urriaren 28an, teknikari diren Iñaki Chourraut Agirre jaunak eta Pilar García García andreak bisita egin zioten errefuxiatu talde bati Gurutze Gorriak kudeatutako Harrera Etxean, zeinak badituen hogeitun toki.

Lehenik eta behin, bilera bat egin zen harrera-aldiaren segimendua egiten duen Nafarroako Gurutze Gorriko gizarte langilearekin. Bulegoak erakutsi zituen eta Harrera Etxean bizi diren erre-

fuxiatuekin nola jokaten den azaldu zuen gizarte langileak.

Beheko solairuan gizarte langilearen, hezitzaileen eta psikologoaren bulegoak daude. Halaber, bada talde teknikoarentzat edo errefuxiatuekin darabilten bilera-areto bat.

Goiko solairuan etxebizitzak daude. Bisita egin zenean, haurrak zituzten (badira 7 haur) hainbat familia eta bikotekiderik gabeko zenbait pertsona bizi ziren. Bakar batentzako logelak dira, baina sukaldeak eta jangelak partekatzen dituzte. Eguneroko beren eginkizunetan sorosten dituzten hezitzaileek lagunduta daude etengabe.

Ondoren, gaztelaniazko eskola bisitatu zen eta elkarrizketa bat eduki zen bost errefuxiatuekin (bi Azerbaijangoak, bat Palestinakoa, bat Kamerungoa eta bat Malikoa). Siriar bat falta zen, gaixorik zegoelako.

Azerbaijango senar-emazteak baditu bi seme-alaba. Ama mediku optometrista zen, eta haren senarra ekonomialaria. 2016ko maiatzetik daude Espainian. Palestinako andrea ezkondu dago eta hiru seme-alaba dauzka. Kamerungoak baditu bi urte Espainian. Horietatik bat Madrilen bizitzen eman zuen eta, ondoren, Nafarroara etorri zen bizitzera. Malikoak hilabete batzuk daramatza hemen bizitzen.

Nafarroan, oro har, tratua onajaso dutela adierazi zuten, bai Gurutze Gorriko zerbitzuetan, bai eta osasun- eta hezkuntza-arloan ere beren seme-alabekin. Kamerungoak esan zuen Nafarroan jasotako tratua Madril Erkidegoan jasotakoa baino askoz hobea izan dela. Ildo horretatik, kontatu zuen Nafarroara iritsi eta egun gutxira, jada errolatuta zegoela, bazuela osasun-txartela eta, gainera, gaur egun trebatzeko ikastaroak egiten ari dela aurrerago lan bat aurkitze aldera.

Gizarteratu ahal izateko orduan Nafarroan aurkitzen dituzten arazoak azaldu zituzten pertsona horiek:

Guztiak bat etorri ziren zailtasun handienak etxebizitza bat alokatzeko orduan dituztela esatean. Pertsona hauek badituzte babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko arazoak, gaur egun indarrean dagoen baremoan errolatzeagatik aitortutako puntuazioa dela eta, eta horrenbestez, etxebizitza libreak eskuratu zituzte. Ministerioak diru-laguntza ematen die alokairua ordaindu ahal izateko. Alokairuzko pisuak beraiek bilatzen dituzte zuzenean, partikularren edo higiezin agentzien bidez. Errefuxiatuak izate hutsagatik jabeak fidatzen ez direla-eta arazoak izan dituztela kontatu zuten. Palestinako emakumeak (hainbat seme-

alaba dituen emakumea) baieztatu zuen hiru hilabete baino gehiago zeramala etxebizitza bat alokatu nahian eta ezin duela lortu jabeak haietaz fidatzen ez direlako Palestinakoak eta errefuxiatuak izateagatik. Azerbaijango senar-emazteek inguruabar hori berretsi dute, izan ere, hilabete zenbait bilatzen ibili eta gero, azkenean, etxebizitza bat alokatzea lortu baitute beraientzat eta beraien seme-alabentzat, Txantrea auzoan (Iruñea).

Gehienetan pisurako abal gisa lan kontratua eskatzen dietela azaldu zuten eta higiezin agentziak eta jabeak ez direla fidatzen ministerioaren diru-laguntza errenta ordaintzeko bermea izango denik.

Beste alde batetik, beraien seme-alabak ikastetxean oso ongi gizarteratu direla eta oso pozik daudela esan zuten. Ez dute inongo arazorik ez eskolarekin ez eta lagunekin ere.

Lana lortu ahal izateko ideiarekin ere mesfidati agertu ziren. Etxebizitzak alokatzeko arazoak badituzte, lana topatzeko ere izango dituztela baieztatu zuten.

Jasotzen duten trebakuntzari dagokionez, lehen fasearen baitan, gaztelaniazko eskoletara joaten dira egunero, bi orduz. Horretaz gainera, badituzte oinarrizko trebakuntzako beste ikastaro batzuk baliabideei buruz eta lan berri baterako prestatuak egon daitezzen.

Azerbaijango andreak, lanbidez mediku denak, kontatu zuen Nafarroan osasungintzak nola funtzionatzen duen nahian, Osasungintza Departamenduan osasun-zerbitzuak eskuratzetik ba ote zuen galdetu zuela. Haatik, aukera hori ukatu zioten. Bere buruari galdetzen zion hemen Nafarroan zer arlotan egin ahalko zuen bere mediku-lana. Bakarrik arlo pribatuan jarduterik izango duela uste zuen, baina zailtasun asko ikusten ditu.

Azken buruan, ondorio bera ateratu zuten denek: Nafarroan, bai Gurutze Gorriaren eskutik, bai eta osasun eta hezkuntza zerbitzuen eskutik ere, tratua onajaso izan da eta alokairuzko etxebizitza bat lortzea eta lan bat eskuratzeko dituzte arazo nagusiak.

E) Lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Gobernuaren eta CEAREN (Errefuxiatuen Laguntzarako Espainiako Batzordea) artean.

2016ko iragan azaroaren 7an Nafarroako Gobernuak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuen Errefuxiatuen Laguntzarako Espainiako Batzordearekin (CEAR). Horren bidez, NASUVINSA elkarte publikoaren sei etxebizitza eman zaizkio

erakunde horri. Etxebizitza horiek 32 pertsona barne hartzeko ahalmena dute. Etxebizitzak urte baterako eman dira alokairuan. Hiru urtera arte luza daiteke alokairua.

Horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateak errefuxiatuak atosteko ahalmena handitu du, lankidetzaz hitzarmen hori sinatu izanak Nafarroan CEAR (Errefuxiatuen Laguntzarako Espainiako Batzordearekin) ezartzea ekarri baitu.

2016ko azaroaren 7ra arte, Nafarroan errefuxiatuak atosteko ministerio eskudunak egiaztatutako erakunde bakarra Nafarroako Gurutze Gorria zen. CEAREkin lankidetzaz hitzarmena sinatzearen ondorioz, errefuxiatu gehiago hartzeko Nafarroaren ahalmena handitu da. Nafarroako Gurutze Gorriak kudeatutako 60 plazetatik 110 plaza egotera igaro da.

F) Txosten bereziaren zirriborroa Gizarte Eskubideetako Departamenduari eta Nafarroako Gurutze Gorriari ematea.

Txosten bereziaren zirriborroa eginda, Gizarte Eskubidetako Departamenduari eta Nafarroako Gurutze Gorriari eman zitzaion beharrezkotzat jotzen zituzten ekarpenak egin zitzaizkion.

2016ko azaroaren 9an Gizarte Eskubidetako Departamenduaren ekarpenak jaso ziren eta, funtsezkoan, txostenaren edukari gaineratu zaizkio.

III. BALIOESPENA

Azaldutako egitateak kontuan hartuta, erakunde honek honako hau egiaztatu du:

a) Eskuarki, gatazkan diren herrialdeetatik datozen eta Nafarroan harreran dauden errefuxiatuen oinarritzko eskubideak hemezortzigarren eta hogeita laugarren hilabete artean bermatzen dira modu eraginkorrean.

b) Nafarroako Gobernuak eta Gurutze Gorriak pertsona horiei emandako arreta, txosten hau egin den datan eta eskuragarri dagoen informazioarekin, egokitzat jotzen da.

c) Nafarroan bada harrera-programa bat pertsona horiek atosteko eta, gaur egun eta eskuragarri dagoen informazioa aintzat hartuta, egokitzat jotzen da.

d) Nafarroako Gobernuak 2015eko irailean 200-300 pertsona hartzeko ahalmena zenbatetsi zuen, Espainiako Gobernuak Europako Batasunarekin hartutako konpromisoa eta data horretan maneiatzen ziren zifrak aintzat hartuta. 200-300 pertsona hartzeko ahalmena era positiboan balioesten da, baina egiazki ez da erabiltzen, erre-

fuxiatu gutxi jasotzen ari baita eskura duen harrera-ahalmenarekin alderatuta.

e) Pertsonen etorrera Nafarroara oso-oso motelki gertatzen da Nafarroako Gobernuaren eskumen-eremutik kanpo sortzen diren arazoak. Nafarroako Gobernuaren arabera, etorrera Nafarroara oso gutxi planifikatuta dago: Nafarroako Gobernuak egun batetik bestera jakiten du nortzuk iritsiko diren eta Estatuko Administrazioak hizketa-kide bakar gisa jotzen du Gurutze Gorria.

f) Nafarroako gizarteak administrazioen eskutik harrerarako etxebizitzak jartzeko ahalegina egin duen arren, gutxirako balio izan du saiakerak, harrera-programaren moteltasuna dela eta.

g) Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen artean koordinazio gabeziak daudela hauteman da. Foru Komunitateak bere eskumenean esparruan kudeaketa eraginkorragoa gauzatzea galarazten dute gabezia horiek. Arazo horiek asilo-eskubidea eta babes-subsidiarioa arautzeari buruzko urriaren 30eko 12/2009 Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotako koordinazio eta lankidetzazko printzipioen arabera konpondu behar dira.

h) Nafarroako Gobernuak badu nahikoa baliabide pertsona errefuxiatuak harrera-aldian atosteko. Hala eta guztiz ere, arazo hau ematen da: gerta liteke harrera-aldiak aurrera eginda (hemezortzi eta hogeita lau hilabete artean irauten du fase horrek) edo amaituta, errefuxiatuek jada ez gozatzea berariazko baliabideez eta beste herritar bat bezala hartuak izatea. Praktikan, inguruabar horrek errefuxiatu batzuk gizarte-bazterketa egoeran kokatzen ahal ditu, izan ere, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun arazoei lana eskuratzeko zailtasunarekin lotutakoak gehitzen zaizkiolako, errefuxiatu gehienek enplegarritasun eskasaren profila ikusita (berrogei urtetik hurbileko edo gorako adina, hizkuntzaren ezagutza mugatua, bertako ohituretatik ezberdinak diren ohiturak...).

i) Nafarroan jasotako tratua ona dela diote Nafarroan harreran dauden asilo-eskatzailleek; bai Nafarroako Gobernuaren eskutik jasotzen dutena, gizarte, hezkuntza eta osasun zerbitzuei dagokienez, bai eta Gurutze Gorriaren eskutik jasotzen dutena ere.

j) Asilo-eskatzailleek azaltzen dutenez, etxebizitza bat eskuratzeko (alokairuan) eta lan bat lortzeko dituzte arazo nagusiak.

IV. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Gomendioen bidez herri administrazioen zerbitzuak hobetzeko Nafarroako Arartekoari esleitu zaizkion eginbeharren arabera [Nafarroako Gobernuko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 16 b) artikulua], erakunde honek egoki ikusi du Nafarroako Gobernuaren Gizarte Eskubi-deetako Departamenduari gomendatzea:

a) Eutsi diezaiola errefuxiatu gehiago atosteko Espainiako Gobernuari egindako eskaintzari, 2015eko irailean Nafarroako Gobernuak egindako harrera-plana betetze aldera, Europako Batasunaren akordioa betez Estatu espainiarrak Nafarroari esleituko dizkion zifrak gaindituta.

b) Estatuko Administrazioa premia dezala, bere eskumenari dagokion neurrian, koordinazioa hobe dezan errefuxiatuei behar bezalako arreta emateko.

c) Gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, lanaren eta etxebizitzaren esparruan beharrezkoak diren sostengu-neurriak areago ditzala, errefuxiatuak baztertzeko arrisku oro galarazte aldera, bai bigarren fasean, bai eta, bereziki, harrera-aldia bukatuta ere.

d) Nafar gizartean eraginkorki gizarteratzeko plan berezi bat egitea azter dezala harrera-aldia amaitu ondoren Nafarroan gelditu nahi duten errefuxiatuentzat.

e) Errefuxiatuen harrera- eta gizarteratze-prozesuak eta ematen zaizkien berariazko zerbitzuen kalitatea ebaluatzen balio duten adierazle eraginkor batzuen ezarpena balioets dezala.

f) Aintzat hartu eta txerta ditzala, bere eskumenen eremuan, autonomietako arartekoekin eta administrazio eskudunekin izandako bileraren ondoren Arartekoak gaiari buruz egindako eta txosten honetan jasotako gomendio eta proposamenak, etxebizitza eta lan gaietan egokitzen jotzen duen moduan garatuz, eta hezkuntza gaien Hezkuntza Departamenduarekin koordinatuz eta, hala badagokio, udalerriekin oinarrizko gizarte zerbitzuei badagokie.

g) Nafarroan kokatutako errefuxiatuekin eta errefuxiatuak atosteko erakunde egiaztatuekin eta GKEekin aldiro-aldiro hartu-emanak izan ditzala, harrera- eta gizarteratze-prozesuetan beharrezko-tzat jotzen dituen hobekuntzak egite aldera.

